

# hazi

LEA-ARTIBAICO EKONOMIA ALDIZKARIA

2011ko IRAILA  
24. ZK. • 7.urtea

Lea-artibai eskualdearen  
garapenarekin konprometiturik



6-7

MIREN LARREA ARANGUREN

[ IKERTZAILE SENIORRA ORKESTRAN ]

Lurralde garapen  
ekonomikoaren  
definizio berrirantz.

Mendexako urak,  
itsaski haztegien  
pilotu proba

Barraskiloen  
delicatessea,  
saltza eta guzti

Profesionalentzako  
hornikuntza Xuri  
burdindegian



**HAZI aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:  
**Azaro Fundazioa**

LEGE GORDAILUA: **BI-804-05**

EGOITZA: **Xemein Etorbidea 12-A  
48270 MARKINA-XEMEIN**

TELEFONOA: **94 616 91 72**

E-POSTA: **azaro@leartik.com  
leartibai@leartibai.com**

TESTUAK ETA ARGAZKIAK:  
**Hitza, Leartibai Garapen  
Agentzia eta Azaro Fundazioa**  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: **11 BARRI**

WEBGUNEAK:  
**www.azarofundazioa.com  
www.leartibai.com**

**Editoriala 03**

«Jakituria, gizartearen eta gizakiaren garapenaren giltza»

**Enpresak sortzen 04 - 05**

ENPRESAK SORTZEN

**KUKUBILTZO:** Mutilentzako moda gaztea, berton.

**BARGOT:** Barraskiloen saltsa.

EKINTZAILEENTZAKO GUNEA

**Lea-Artibaiko ekintzaileen I .Topaketa**

**Iritzia:** ESTI PLAZA ELORDI

**Ikuspegia 06 - 07**

Hara erronka: **LURRALDE ESTRATEGIA  
ENPRESA ESTRATEGIAREKIN** uztartzea.

**Bertoko enpresak ezagutzen 08 - 09**

ENPRESAK EZAGUTZEN

**XURI:** Profesional guztientzako hornikuntza

**EZENARRO:** Egur bidezko isolamenduak.

ENPRESENTZAKO GUNEA

**Elkargunea:** Enpresak elkar ezagutzen

**Iritzia:** AINHOA ARRIZUBIETA PLAZA

**Behatokia 10 - 11**

Long line teknologia Mendexan

**Datu sozio-ekonomikoak**

**Leihatila 12**



www.azarofundazioa.com



www.leartibai.com

**06 - 07 Ikuspegia**

**MIREN LARREA ARANGUREN**  
[ IKERTZAILE SENIORRA ORKESTRAN ]



Teknologia generikoa enpresen jakintza tradizionalan dago aldaketarako giltza, European garatzen ari den ideiarri jarraiki. Hala baieztatu du Miren Larrea Aranguren Ikertzaile Seniorrak. Ekintzara pasatu beharrez berba egin du, baina horrek jarrera berezia eskatzen duela ere badi. «Ideia berriak bilatu, aztertu, esperimentatu eta gaia mamituta dagoenean, arriskuak hartu behar dira». Horrenbestez, berrikuntza eta ekintzailetasuna eskutik doazela baieztatu du, eta kasu guztietan pertsona dela oinarria. Hurrengo plano batean, lurralde estrategiak eta enpresa estrategiak uztartu beharrez berba egin du.

# EDITORIALA

## Jakitura, gizartearen eta gizakiaren garapenaren giltza

Lekeitioko Andra Mariaren Zeruratze eliza benetan ikusgarria da. XV. mendeko eraikuntza gotikoa da, eta antzinako edozein monumenturekin gertatzen den moduan, saihestezina da aho zabalik geratzea, hain dira zirrargarriak eraikainok. Izugarritzko obrak egiten ziren antzina, oso funtsezko ezagutzak eta teknologiak erabiliz. Gutxi batzuek asmatzen zituzten, eta beste askoren indarrari esker gauzaten ziren. Eskulanen garaiak ziren, obra erraldoi guztiek izugarritzko eskulana zeukaten-eta atzetik. Hortaz, ez da harrizkoa maiz entzutea gaur egun ezingo genukeela egin horrelako obra erraldoirik.

Lehen obrak eskulana erabiliz egiten baziren batik bat, gaur egungo obrak edo aurkikuntzak askoren jakituriari esker asmatzen eta gauzaten dira, eta jakintza hori bizitzako arlo guztietara zabaldu da. Aurreko zibilizazio eta gizarte gehienek eduki dituzte obra esanguratsuak, eta gure sasoiko obrak jakintzaren bitartez egindako aurrerapenak dira, bestek beste, bidaia espazioan zehar, organoen transplanteak, giza eskubideak, atomoen ezagutza, zelulen klonazioa, generoen

arteko berdintasuna eta DNA-ren katea, azken hori XX. mendeko aurkikuntzarik garrantzitsuena. Gaur egungo eta etorkizuneko aurkikuntza handienek, batzuk ukiezinak eta ikusiezinak, fikziozkoak dirudite gizaki arruntontzat. Beraz, erratzeko beldurrik barik esan genezake gaur egun bai egin daitezkeela aurreko garaiko besteko obra erraldoiak.

Atapuercako indusketen zuzendarikide Eudald Carbonell arkeologo, antropologo eta paleontologoaren esanetan, aurreko zibilizazio horietatik hainbat desagertu ziren gizartearen kolapsoen medio, gizarte horien garapenak desorekara eraman zituelako. Gaur egungo egoera ikusita, esan genezake gure zibilizazioa ere desorekatuta dagoela, baina lortzea espero den jakitura mailari esker, hobetzeko eta aurrera egiteko aukera argiak eduki ditzakegu. Hori da, izan ere, erronkarik nagusiena, gure gizartearen jakituriaren maila handituz, garapen mota berrialortzen saiatzea, gizatiarragoa izan behar dena. Horixe izango da, dudarik gabe, gure sasoiko obrarik handiena, ikusezina, ukiezina, baina ezinbestekoa.

BABESLEAK



EL FONDO SOCIAL EUROPEO  
INVIERTE EN TU FUTURO



Produktu hau Valora proiektuaren baitan egin da, proiektu horren finantzaziorako funtsen %50 EGIFek eman du (POPV 2007-2013)

### KUKUBILTZO

[ ARROPA DENDA - MARKINA-XEMEIN ]

## Mutilentzako moda gaztea, berton.

Pasa den udaberrian ireki du Aitor Bereziartuak Kukubiltzo denda, Markina-Xemeingo alde zaharrean. Herritik irten barik, gizonetako gazteek moda-modan egoteko aukera daukate harrez gero.

Markina-Xemeinen falta izan denari erreparatu dio Aitor Bereziartuak (Etxebarria, 1970) negozio berria irekitzerakoan. "Argi neukan neure negozio propioa ezarri nahi nuela berton. Hasieran makailau denda bat jartzea izan zen ideia; Azaro Fundazioaren laguntza eduki nuen bideragarritasun azterketa egiteko, eta ikusi nuen

arlotan ez litzatekeela bideragarri izango. Herrian ez zegoen merkataritza arloren bat jorratu beharko nukeela esan zidaten", dio Bereziartuak. Eta, horrela, konturatu zen Markina-Xemeinen emakumeentzako adin guztietarako moduko moda zegoela, baina ez, osteratzen, gizonetakoentzat: "Gazte moda falta zen". Horra hor Kukubiltzok bete duen hutsunea. Lokala atontzerakoan lagun artean egin du moldaketa: "Ateak eta apalak izan ezik, beste guztia geuk moldatu dugu". Ikutu informala emon diote, egur moldaketak erabilita gehien bat. Arropa horniketa antolatuzeko, berriz, Tere Jesus Bilbao, Josune arropa dendako arduradunak lagundu dio asko, eta hori eskertzeko dauka Bereziartuak.

"Pozik" dago herrian jasotzen dagoen erantzunagaz: "Polito saltzen nabil, eta datorren jendea gustura geratzen denez, neu ere bai".



Aitor Bereziartua.

### BARGOT

[ JAKIEN ELABORAZIOA - GIZABURUAGA ]

[www.bargot.es](http://www.bargot.es)

## Barraskiloak esprinean goi mailako sukaldaritzan

Jon Txakartegi lekeitiarrak barraskiloen haztegia martxan dauka Okamika industrialdeko Legamin enpresen haztegian, Bargot.



Jon Txakartegi, Bargot-eko produktua erakusten.

Amak saltsekin zeukan eskua "aprobetxatuta", barraskiloen haztegia martxan ipintzeko gogoia piztu zitzaion Txakartegiri, eta Azaroren eta Leartik-en laguntzarekin, saltoa eman zuen.

Bargot barraskiloentzako saltsa kontuetan da indartsu. Produktu naturalekin egindako saltsa da berea, eta tirada, txikia; "zapora guztia mantentzeko". Ekoizpena bezeria jakin batera bideratuta dago, goi mailako sukaldaritzako plater dira-eta barraskiloak. Barraskiloen munduan espezialistak bihurtu nahi zuten, erreferente, eta horrek Euskal Herriko, Espainiako estatuko eta atzerriko ateak zabaltzen dizkie, gourmet erakusketa ospetsuetan parte hartuta, esate baterako. Kontsumo datuak argigarriak dira: Espainiako estatuan, urtero, 14.000 tona barraskilo jaten dira; eta Frantziako estatuan, 60.000 tona.

Bargot Legamineko 3. Pabiloian dago, 6-E moduluan, eta 150 metro kadrako azalera hartzen du, barraskiloen elaborazioko egokia, Txakartegik dioenez.

## Ekintzaileei bideratutako ikastaroak

Joan den ekainean, Lea-Artibaiko Berrikuntza Gunean enpresaren bat sortzeko asmotan dabiltzan ekintzaileei zuzendutako azken ikastaroa bukatu zen. Leartibai Garapen Agentziak eta Azaro Fundazioak antolatuta eta hogeita hamar orduko ikastaroan, enpresa sortzean kontuan hartu behar diren gaiak landu zituzten. 20 lagunek parte hartu zuten, eta alde komertziala eta ekonomiko-finantzarioa izan ziren interes handiena eragin zutenak. Bezeroarengana ailegatzeara ezinbestekoa dela ikusi zen, eta egiten diren salmentetan dirua irabazi edo galdu egiten den aztertu behar dela azpimarratu. Ikastaro honen beste deialdi bat antolatuko da udazkenean. Parte hartu nahi dutenak jar daitezela gurekin harremanetan [ Tel. 94 616 91 72 ].

## ENPRESA IDEIEN LEHIAKETA



Leartibai Garapen Agentziak eta Azaro Fundazioak antolatuta, 2012an Enpresa Ideien Lehiaketaren beste deialdi bat abiatuko da. Bi arlori zuzenduko da, Enpresa Berriei eta Berrikuntza Proiektuei.



## IRITZIA

Esti  
Plaza  
Elordi

[ AZARO FUNDAZIOKO SUSTAPEN GUNEKO ARDURADUNA ]

## Ekintza, norbere ilusioa egia bihurtzeko bide

Ekintzailtza, pertsona ekintzailea, ekintzaile izaera... egunero ahoan dabilzkidan hitzak dira. Enpresa alorrean jarduten dugunean, norbere negozio propioa martxan jarri nahi duen horri deitzen diogu ekintzaile, hain zuzen ere. Horretan dihardugu buru-belarri Azaro Fundazioan eta Leartibai Garapen Agentzian, gure eskualdean norbere kasa negozioa martxan jarri nahi duen ekintzaile horiei laguntzen. Hori da gure misioaren ardatza, enpresa eta lanpostu berriak sortzen lagundu eta bertoko biztanleek bertan bizi ahal izateko lanpostua eduki dezaten lan egitea.

Gazteak ginenean eta geroago ere, unibertsitatean genbiltzala esate baterako, inork ez zigun aipatu ere egin norbere kontura lan egitearen aukera zegoenik. Curriculum txukun eta itxurosoa egiteko pausoak azaltzen zizkiguten, eta lan elkarriketetan nola jokatu ere bai, bestelako aukerak existitzen zirela gogorarazi ere egin gabe. Egun, ordea, zentzu horretan aldaketa izugarria gertatzen ari da: urtez urte, geroz eta gehiago dira norbere ilusioak gauzatu ahal izateko eskura jartzen diren baliabideak. Administrazio Publikoa, gurea bezalako hainbat erakunde, ikastetxeak... denak daude gero eta inplikatuago zentzu horretan. Beraz, buruan ideiare bati bueltaka bazabiltzate, pausoa ematera animatzen zaituztet. Animatu eta sor ditzagun elkarrekin jarduerak berriak edota berriak dituzagun martxan ditugunak.

Zorionak zeuen kabuz zerbaitetan ekitea erabaki duzuenoi, eta zorte on hasi berri duzuen abentura horretan!

## Lea-Artibaiko ekintzaileen I. Topaketa

Leartibai Garapen Agentziak eta Azaro Fundazioak antolatuta, joan den ekainaren 21an egin zen Ekintzaileen I. Topaketa, Markina-Xemein-



go Lea-Artibaiko Berrikuntza Gunean eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ekintzailearekiko sentsibilizazio programaren baitan. Topaketaren helburua Lea-Artibaiko eskualdeko ekintzaileen arteko harremanak indartzea izan zen. Azken hiru urteetan negozio berriren bat martxan jarri duten edota momentu honetan negozioa martxan jartzeko lanetan dabiltzan ekintzaileak gonbidatu ziren.

Antolatzaileek topaketa hau urtero antolatzeko konpromisoa adierazten dute, urtez urte parte-hartzaileen kopurua gehitzen joango den itxaropenarekin, gaur egungo ekintzaileak izango baitira eskualde honen etorkizuneko garapen ekonomikoa bultzatuko dutenak.

## enpresa berrien sorrerarako emandako zerbitzuak ▶

- Enpresa berrien sorrerako tramiteak
- Diru laguntzei buruzko informazioa eta tramitazioa
- Bideragarritasun planaren lanketa
- Proiektu guztien aholkularitza personalizatuta, hasieratik eta laugarren urtea arte.



## «Hara erronka: LURRALDE ESTRATEGIA ENPRESA ESTRATEGIAREKIN uztartzea»

**MIREN LARREA ARANGUREN**

[ IKERTZAILE SENIORRA ORKESTRAN ]

**M**iren Larrea Arangurenek Orkestra lehiakortasuneko euskal institutuan dihardu, Lurraldea, berrikuntza eta klusterrak departamenduan. Hango ikerlari seniorra da.

### **Epe luzeko erronkak**

Orain dela gutxi, bi lan bilera desberdinetan eta oso ingurune desberdinetatik zetozen bi pertsoneri oso antzeko esaldia entzun nien. Bizi dugun egoera kapitalismo basatiaren ondorioa dela, eta Europak lortu duen gizarte eredia mantendu nahi badu, erreakzionatu beharra duela. Lurralde garapen ekonomikoaren inguruan dihardugunon artean diskurtsoa aldatzen ari da. Garapen ekonomikoa ingurumenarekin eta gizarte ereduaren erronkekin lotzen ez badugu, eta ekonomiara

soilik hazkundearen ikuspegitik hurbiltzen bagara, agian garrantzitsuagoa den zerbait begi bistatik galtzen ariko gara.

### **Eguneroko kezkek zaila egiten dute epe luzera begiratzea**

Baina egunerokoan bada gainontzekoei gainjartzen zaien kezka bat: krisia: eta ondorioz, langabezia. Urteak daramatzagu hazkunde ekonomikoa helburutzat hartuta. Egoera horretan, berrikuntzaren eta ekintzailetasunaren diskurtsoak ugariak izan dira, baina hitzetatik ekintzetara pasatzea zaila gertatzen da. Sarri diskurtsoa eta ekintzaren artean eduki dugun distantzia horrek nolabaiteko egonezina sortu du. Ez dugu berriro zer egin beharko litzatekeen entzun nahi, nola egin dezakegun ulertu baizik. Enpresa bakoitza errealitate konplexua da, eta, tama-

lez, ez dago guztientzat balioko lukeen errezetarik. Egoerari bakoitzak bere erantzunak aurkituko dizkion arren, elkarrekin ikas dezakegu. Sarri prozesu gogorak badira ere —ohiko eskemak apurtzea eskatzen dutelako—, berrikuntza eta ekintzailetasuna oinarrizkoak ditugu aurrera egiteko.

### **Gauza berriak egin behar ditugu... baina zer?**

Gure eskualdeetan nabaria da egiten dugunetik haratago pauso bat eman eta merkatuan balio gehiago izango duen zerbait egiten hasteko beharra. Baina zer? Galdera horren inguruan hainbat apustu egin daitezkeen arren, bada gaur egun indarra hartzen ari den bat. Gure bideari lotuta dagoen aniztasuna bilatzea. Galdera, beraz, zera litzateke: zer da guk, gure enpresan, eskual-

dean egiten dakigunari lotuta baina balio erantsi gehiagokoa dena? Zer da badakiguna lldo berri hori jorratzeko? Zer da ikasi beharko genukeena? Zein da gure ikasketarako estrategia? Azken hileetan, bada Europako Batasunetik bultzatu nahi den ideia bat horren inguruan. Modu horretako berrikuntza garatu ahal izateko, teknologia «generikoak» deiturikoak (bioteknologiak, nanoteknologia eta informazio eta komunikazio teknologiak) gure sektoreetan dugun jakintza tradizionalagoan txertatzea. Kasu horretan galdera zera da: zer eskaini dezakete teknologia hauek gure sektorean? Hori ere ez da bide erraza, nora jo galdera hauei erantzuteko?

#### **Ekintzailetasuna galderei erantzuna bilatzetik ekintzara pasatzeko**

Aipatu ditugun galderei erantzun eta ekintzara pasatzekoak jarrera berezia eskatzen du. Ideia berriak bilatu, aztertu, esperimendu eta gaia mamituta dagoenean, arriskuak hartzea. Jarrera ekintzailea ez da enpresa berri bat sortzean soilik gauzatzen, enpresa batean edozein proiektu berritzailek eskatzen duen jarrera da. Berrikuntza eta ekintzailetasuna eskutik garatzen dira, beraz. Gaur egun, bai bata bai besteak pertsonengan apustu egitea eskatzen dute, beren ideiak eta jakintza bultzatzea eta azkenean ideia eta jakintza horiek mamitu daitezten elkarlana bultzatzea.

#### **Enpresa bere lurraldean**

Eraldaketa prozesu honen oinarriak neurri handi batean enpresa barruan daude, pertsonak bertan ditzuten balio, jarrera eta ekintzetan. Baina bada enpresaz kanpo estrategikoki pentsatzeko egokia izan daitezkeen eremua. Orokorrean, lurraldeaz hitz egiten da; kasu horretan, eskualdeaz hitz egin genezake. Garapenaren ikuspegitik lurraldea aipatzen dugunean, ez gara ingurune fisikoaz ari, batez ere eremu horretan garatzen diren harremanez eta harreman horien kalitateaz dihardugu. Lurraldeek

ere estrategia eduki dezakete, bertako aktoreen artean definituriko helburuak eta helburuetara iristeko elkarlenerako adostasunak. Plan estrategiko bat edukitzea strategiaren zati bat izan daiteke. Tamalez, batzuetan plan estrategikoak lurraldez kanpoko eragileren baten eskutik egin izan dira, tokiko eragileen partaidetza sinbolikoarekin. Horrelakoetan, zaila da tokiko eragileek plana bereganatzea beren eguneroko ekintzan. Eskualdeko eragileen partaidetza bultzatzeko orduan, Lea-Artibai eredu moduan aztertzen dugu beste eskualde ugariatik.

#### **Lurralde eta enpresen strategiak uztartuz**

Gaur egun lurralde garapenean dihardutenek, garapen agentziak eta beren inguruko beste hainbat fundazio, foro eta abarrek izugarritzko erronka dute esku artean: lurralde estrategia bultzatu eta enpresen strategiarekin uztartzea. Horretarako, ezinbestekoa da lurraldeko eragileekin, hauen artean, enpresekin, komunikazio bideak irekita edukitzea. Bertan enpresek berrikuntzari, dibertsifikazioari, ekintzailetasunari buruz ditzuten kezkei erantzunak bilatzeko espazioak sortu behar dira.

Jakina, agentziak ezin ditu galdera guztientzat erantzunak eduki. Baina sare-tze prozesuak bultzatzea, alde batetik, enpresei galdera egokiak egiten laguntzeko. Bestetik, enpresak jakintza garatzen den gunetara konektatzeko. Prozesu hau aurrera eramateak gaitasun berezia eskatzen du eskualdean. Garrantzitsua da enpresek eskualdeko agentzia eta beste erakundeek enpresa strategiarekin eduki dezaketen lotura ulertzea. Bestalde, agentziak ere lurralde estrategia modu parte-hartzailean, tokiko eragileekin garatzen den zerbait moduan, ulertu behar du.

“ *Ezinbestekoa da lurraldeko eragileekin komunikazio bideak irekita edukitzea* ”

### XURI

[ BURDINDEGIA - MARKINA-XEMEIN ]



Josu Atxurra.

Xurik, lanean daramatzen 13 urteetan, burdindegi txiki arrunta izatetik sektore ezberdinetako profesionalen hornikuntzarako zentro indartsua izatera igaro da. Markina-Xemeingo denda txikia mantentzen du, baina azken hiru urteotan Kareaga industrialdean dauka 1.000 metro baino gehiagoko saltokia.

## Profesional guztientzako hornikuntza

1998an sortutako enpresa da Xuri Burdindegia. Josu Atxurra (Aulesti, 1969) bazkide sortzaileetako bat da; urtetik urtera gorantz doan garapenaren eragile eta lekukoa: "Hasieran burdindegi orokorra zen, baina apurka ikusten joan ginen bertoko sektore profesionalak, errementariak, igeltseroek eta enpresa handiek (Eika, Cikautxo, Kide...) hornikuntza zerbitzuaren premia zeukatela". Material eta tresneria hornikuntza eskualdean bertan edukitzea estimatu egiten dute bezeroek, eta Xuriren apustua horixe izan da, hain zuzen.

"Ez gara espezializatu gremio edo sektore bakar batean eta, egia esan, azken urteotako krisi ego-

erarekin, dibertsifikazio hori abantaila izan da guretzat", dio Atxurrak.

Urte hauetan egindako ibilbidean pauso garrantzitsua izan zen 2004an Unife Kooperatiban sartzeara; 13.000 erreferentzia baino gehiago eskaintzen dizkie stockean, eta 400 hornitzaile baino gehiagorekin egiten dute lana. 2008an, berriz, instalazioak handitzea erabaki zuten eta Kareaga industrialdean 1.000 metro koadro baino gehiagoko saltokia atondu zuten; "pixka bat txiki geratzen hasi zaigu eta moldatu egin behar dugu barrua". 2009an kudeaketaren kalitate ziurtagiria, ISO 9001, eta osasun eta prebentzio arloko OSAS 18001 ziurtagiria lortu zituzten.

Apurka-apurka gorantz doan enpresa proiektua da Xuri. Lan taldea zazpi pertsonak osatzen dute, "finak eta proiektuarekin inplikatuak". Aurrrera begirako erronka modura, euren esparru geografikoa zabaltzea nahi dute, Lea-Artibai eta Busturialdetik harantzago, eta horretarako lan komertzialean sakondu nahi dute.

### EZENARRO

[www.ezenarro.com](http://www.ezenarro.com)

[ AROZTEGIA - ETXEBARRI ]

## Ikerkuntza eta atentzio pertsonalizatua, egurraren bidetik

Egur bidezko isolamenduak kapritxosoen edo eta kontzientzia ekologista daukatenen kontua izateari utziko diola dio Gorka Ezenarrok, etxeak laster energia minimoa gastatzera behartuta egongo baitira. Hori dela eta, bero eta soinu isolamendu maila gero eta altuagoa lortzea dauka helburu printzipala.

Aluminioak egurrari lekua jan ahala, Ezenarro Aroztegiak egur munduan zegoen hutsunea betetzeko aukera ikusi zuen. "Gure arloko enpresa handientzat zaila den merkatura heltzea lortzen dugu", adierazi du Ezenarro Aroztegiako buru Gorka Ezenarrok. Leiho, ate, eskailera, lursoru, balkoi, sukalde, ... produktu sorta zabala da, eta diseinu eksklusiboa eta aholkularitza pertsonalizatua, Ezenaroren desberdintasuna. Azkenazken berrikuntza leiho pasiboa da, etxe pasiboaren baitan. "Etxeak berak sortzen du behar duen beste argindar, ez du hotz-berorik sartzan-irtetan uzten, horixe da etxe pasiboa", adierazi du Ezenarrok. Kontzeptu horrek gremio guztiak ikutzen ditu, ez bakarrik aroztegia. Baina aroztegiaren arloan, Ezenarrok helburu horri egokitzen zaion produktua kaleratu du; prestazio eta mantenimendu aldetik, merkaturako beste edozein leiho baino balore hobetoak lortuz.



Gorka Ezenarro.



## Elkargunea

Elkargunearen baitan, Lea-Artibaiko enpresa guztiei bideratutako hainbat topaketa antolatzen dira, zeharkako gaiak lantzeko.

Aukeratutako gaien inguruan hitz eginez, topaketa hauetan parte hartzen dutenen arteko konfiantza sortzen da, eta elkar ezagutza. Ondoren, harreman horiek luza daitezke edo ez, enpresen euren arabera.

2011. urtean izandako lehen saioa pertsonen enpresetan duten parte-hartzearen garrantzian oinarritu zen. Bigarrena, motibazioan; lan taldearen motibazioan eta norberaren motibazioan, hain zuzen ere. Hirugarren topaketa irailaren 22an izango da. Lan komertziala izango dute hizpide. Bezeroarekin harremanak, eskaintza eta prezioa, komunikazioa eta jarraipen landuko dituzte.

Elkargunea zabalik dago parte hartu nahi duten enpresa guztientzat.

Tel. 94 616 90 88 / nurrutibeaskoa@leartibai.com



## Elkar ezagutzeko foroak

Tokiko garapenean zerikusi handia dute enpresek eta ekintzaileek, etorkizunera-ko enpresak eta lanpostu berriak sortzen dihardutelako. Nola ez, Lea-Artibai moduko eskualde txiki batean ezinbestekoa da tokiko garapenean inplikaturik dauden agente guztien arteko harreman estua, hurbiltasunean eta konfiantzan oinarritzen diren harremanak lantzeko. Hori bultzatzeko asmoarekin, Lea-Artibai Berrikuntza Gunean hainbat ekimen jartzen dira martxan.

Azaro Fundazioak, BFA-ko Lankidetzaren eta Nazioartekotzea programaren barruan, **Lea-Artibai eskualdeko bost enpresari zerbitzuak emango dizkio nazioartekotzea, merkataritza, teknologia eta finantza arloetan enpresen arteko lankidetzaren bultzatzeko**. Zerbitzu horren baitan, Azaro Fundazioak eta enprekin osotutako lan taldeek Europa mailako hainbat herrialde aztertuko dituzte, enpresa bakoitzarentzat estrategikoak diren merkatuetan izan daitezkeen aliantza komertzialak, teknologikoak edo finantzarioak identifikatzeko helburuarekin. Bost proiektu hauek irailean hasiko dira, eta sei hileko epearen barruan bukatuko dira.

## enpresen lehiakortasuna hobetzeko eskaintzen diren zerbitzuak ▶

- 1.- Compite-Enpresak: enpresen lehiakortasunean eragiten duten proiektuen garapena %50ean finantzatuta
- 2.- Finantza zaintza: enpresen finantza arloan hobekuntzak egiteko %75eko laguntza
- 3.- Berrikuntza eta dibertsifikazio proiektuen garapena
- 4.- Diru laguntzen gestioa
- 5.- Elkarguneari: enpresen interesen arabera antolatutako mahai-inguruak

## IRITZIA



Ainhoa  
Arrizubieta  
Zabala

[ AZARO FUNDAZIOKO ENPRESA GUNEKO ARDURADUNA ]

## Berrikuntza, lankidetzaren eskutik

2008. urtean, *Berkeley* Unibertsitateko irakasle eta *Center for Open Innovation*-eko zuzendari exekutibo Henry Chesbrough entzuteko aukera eduki genuen. Haren ahotik ezagutu genuen lehenengo bider *Open Innovation* kontzeptua. Berrikuntza proiektuak garatzeko bidea da, enpresa barruko eta kanpoko ezagutza uztartzen dituen. Berrikuntza estrategia horren bidez, enpresek beraien ezagutza muga gainditu dezakete, eta horretarako, enpresen arteko eta enpresen kanpoko agenteen arteko lankidetzaren ezinbestekoa da.

Berrikuntzan ere jakitun den Lundvall et al-en hitzetan, berritzeko bi bide daude: bata STI (Science, Technology, Innovation) deitzen dena, zentro teknologikoen sortzen duten ezagutza zientifikoa eta teknologikoa oinarritutako berrikuntza; eta bestea DUI (Doing, Using, Interacting) deritzana, enpresen esperientzia eta know-how-az, eta merkatuaren eraginez, enpresetan sortzen diren gaitasun berrietan eta antolamendu era berrietan oinarritutako berrikuntza.

Beraz, bi autore horien ikuspuntutik, berritzeko ezinbestekoa da enpresen eta berrikuntza eta lehiakortasun agenteen arteko elkarlana. Gure inguruan baditugu lankidetzaren hori sortzeko beharrezko elementuak, eta haien arteko konektioak indartzeko tresna eraginkorrak egon behar dira. Eskualde honetan Lea-Artibai Berrikuntza Gunea dugu horretan lanean. *+innovanet Sarea*-aren hastapen fasean parte hartzen ari da, EAE mailan sustapenean eta berrikuntzan ari diren eragileen arteko topaketa foroa izateko asmoz jaiotako ekimena.

# LONG LINE teknologiaren bidez, itsaski ekoizpena Mendexan

**G**aur egun, munduko itsaskien eskaria gero eta handiagoa da. Batez ere, akuakulturaren bidez erantzuten zaio eskaera horri, eta bigarren fenomeno bat ere gertatu da: aurrerapauso handiak eman dira teknologiaren garapenean eta eta egokitzapenean. Esate baterako, itsaski hazkuntzarako erabiltzen diren teknologiak egokitzen ari dira, itsaso baldintza desberdinetarako bailagarriak izan daitezten.

Garatu den teknologietako bat LONG LINE deritzona da. Beste hainbat lekutarako bezala, Bizkaiko Golkoko itsas baldintzetarako ere egokitu da Urpeko etenik gabeko Long Line teknikaren garapeneren bitartez. Long line urpekoekin hainbat abantaila lortu dira. Alde batetik, ekoizpen eta bilketa prozesua guztiz mekanizatzea; eta bestetik, arrantza eremua, hau da, batea tradizionalak (ur azalean jartzen diren plataforma tradizionalak) edo ur azaleko long lineak itsaski ekoizpen eremuekin guztiz bateragarriak izatea.


Adibide gisa: Duela urte batzuk itsaski ekoizpena ezinezkoa zen itsas zabaleko eremuetan itsas baldintza zakarrak zirela eta, baina gaur egunean egon diren teknologi aurrerapenak medio, aukera berriak sortu dira.

Aipatzekoa da long line teknologi garapen eta komertzializazioan mundu mailan enpresa erreferenteen artean gure eskualdean kokatzen den **ITSASKORDA**

enpresa dagoela. AZTI ikerketa zentruarekin batera Itsaskorda Bizkaiko Golkoko itsas baldintzetan teknologia horren balioztapena frogatuko duen proiektu pilotuan parte hartzen ari da.

Mendexako uretan egin behar da Long line urpekoen pilotu proba, garatutako teknologiak Bizkaiko Golkoko baldintzetara egokituta dagoen jakiteko. Konkretuki muskuilu eta ostra hazkuntzarekin egingo dira frogak. Proiektu pilotuaren emaitzak espero diren bezalakoak badira, inguruko arrain kontserbera eta arrantzaleei bide berri bat zabalduko zaie Andaluzia, Galizian, Eskozian, Zelanda Berrian eta beste leku batzuetan gertatu den bezala. Azken batean, itsaskiak itsas zabalean ekoizten badira, arrantzaleak izan behar dira zaindu eta jasoko dutenak, eta kontserberak izango dira itsaski hauei balio erantsia eman eta komertzializatuko dituztenak. Beraz, zorteko izango dira Lea Artibaiko arrantza, arrantza zuzenduriko industria auxilierra eta kontserberak.

**ITSASKORDA**k lehiakortasunaren hobetzearekin duen konpromisoak egiten du posible horrelako proiektuak garatuz inguruaren garapen ekonomikoan eragitea. Eredubaliogarrria da sektore helduetan ere etorkizunera begirako urratsak eman daitezkeela baiztatzeke.



## ZER DA LONG LINE-A?

Long line arrain haztegiako sistema bat da, zintzilikatuta geratzen den haztegi sistema. Ezaugarri hauetxek ditu: soka nagusi bat dago, ama. Soka amari buia batzuk lotzen zaizkio, eta horri esker, haztegiaren egitura flotean mantentzen da. Sokaren muturra hondoan tinko mantentzen den buian dago. Buiari buia nagusia, besteak baino handiagoa da, eta pisua jartzen zaio, pisu nagusia, behean tinko mantendu dadin. Pisu hori kalkulatzeko orduan, zera hauek hartzen dira kontuan: egitura ainguraturik dagoen uraren sakonera eta baldintza ozeanografikoak. Pisu nagusiaren eta buia nagusiaren artean, hiru kontrapisu daude, eta horri esker, lerro nagusia tenkatuta mantentzen da, beteta zein hutsik, marea goian zein behean egon.

## Leartikerretik eratorritako lehenengo NEGOZIO AUKERAK

Behatokiko helburua negozio aukera berrien identifikazio proaktiboa da.

2011. urtean ere Azaro Fundazioak negozio aukera berrien identifikazioan lan egin du. Urtarrila-uztaila bitartean hurrengo azterketak egin dira:


- Eraikuntzaren industrializazioa: eraikuntza modularra eta erabiltzen den ekipametuaren azterketa
- Efluenteen tratamendua laborategietan: laborategietan efluenteen tratamenduak etorkizunari begira eman ditzakeen aukeren azterketa
- Arrain hondakinen balioztatzea: arrain hondakinetatik erator daitezkeen produktu berriak
- 3. adina: sektoreak eskaini ditzakeen negozio aukeren identifikazioa
- Mikorizazioa: landare ugalketarako teknika berritzaileen garapena

Egindako azterketa hauetatik, lehenengo bietan ez da eskualdearen garapen ekonomikorako baliozgarria izan daitekeen aukerarik identifikatu. Al-diz, arrain hondakinen balioztatzeak, 3. adinak eta mikorizazioak negozio berriak egiteko aukerak eskaintzen dituztela baieztatu da. Hemendik eta urte bukaerara, aukera horietan sakontzea izango da Behatokiko helburuetako bat.

Horretaz gain, Behatokia ez da mugatzen eskualdetik kanpoko garapenak behatzera. Prozesu definitua du Leartikerrekin, elikagaien eta material polimerikoen inguruan ikerketa egiten duen erakundearekin, ikerketatik atera daitezkeen negozio aukerak identifikatu eta garatzeko. Elkarlan hori lehenengo fruituak ematen ari da, eta material garapenera bideratutako ikerketa lerrotik definitu da lehenengo negozio aukera berritzailea. Urteko HAZIren azken zenbakian, horren berri izango duzue.

## datu sozio-ekonomikoak


Azken 12 hilabeteetako Lea-Artibaiko langabezi tasaren bilakaera.




Azken urteetako establezimenduen kopurua.

	2006	2007	2008	2009	2010	2006-2010 aldea
<b>EAE</b>	186.306	199.310	203.911	201.952	191.057	2,55%
<b>Bizkaia</b>	95.871	101.900	104.838	104.510	99.086	3,35%
<b>Lea-Artibaik</b>	1.843	1.969	2.020	2.010	1.925	4,45%

Biztanleriaren sakabanaketa herrika 2010.



Biztanleriaren piramidea 2010.



# LEIHATILA

## EPEA ZABALIK DAUKATEN DIRU LAGUNTZAK ▶

### Lehiakortasuna hobetzeko

#### JABETZA INDUSTRIALA BABESTEIA

Patente eta erabilgarritasun ereduak eskabideak egiteko laguntzak.

### Finantzazioa

#### AFA

Autonomoek inbertsioak egiteko eskatutako maileguetarako laguntzak.

#### RESISTE:

Finantza zorrak negoziatzeko homologatutako goi mailako finantza aholkulariak kontratatzekeko laguntzak.

### Besteak

#### ONDORENGOTZA

Enpresa txiki eta ertainei jabetzaren edo kudeaketaren ondorengotza planifikatzen laguntzeko.

#### MERKATARITZA

Establezimenduen titular aldaketarako eta berrien sorrerarako laguntzak.

#### PRAKTIKETAKO KONTRATUAK EGITEKO LAGUNTZAK

Praktiketan kontratatu den pertsonaren soldatan laguntza.

#### ENPRESAK SORTZEKO DIRULAGUNTZA

Inbertsionarako eta lehenengo urteko gastuetarako laguntzak.

#### ENPRESA SORTU BERRIEK - KONTRATAZIOAK EGITEKO

Urte bat baino luzeago diren kontratuetarako laguntzak.

### Enpresentzat elkargunea. TREBAKUNTZA

#### JARDUNALDIA:

*Lan komertziala, nola saldu enpresako produktu eta zerbitzuak?*

2011ko irailaren 22an

Izena emateko eta informazio gehiagotarako [nurrutibeaskoa@leartibai.com](mailto:nurrutibeaskoa@leartibai.com)

**Informazio gehiagorako**  
edo eta eskaria egiten laguntzeko

**DEITU:**

**94 6169172**  
**94 6169088**

**Leartibai**  
Garapen Agentzia

[www.leartibai.com](http://www.leartibai.com)  
[leartibai@leartibai.com](mailto:leartibai@leartibai.com)

**azaro**  
fundazioa

[www.azarofundazioa.com](http://www.azarofundazioa.com)  
[azaro@leartik.com](mailto:azaro@leartik.com)